

Eskerriz beroenak emanez iruñako jaurlaritzan izkuntz-arazoaren ardura duen Fernando Perez de Viñaspre

On Fernando, adiskide ez-ezaguna: Zu aipatu zaitu, era goresgarrian, «Naparroa'ko Egunkari» onek joan den Ekainaren 29'n.

Ezaguna genuen, igaz «Izkuntzen Eskubidei» buruz gure Iruña ontan ospatu zen Batzar-taldea. Orain, zuk aurkeztu omen duzu Batzar aietan artutako erabakiak biltzen dituen liburu argitaratu-berria. Bikainki mintzatu zara liburu ori aurkezterakoan, On Fernando. Eta mintzaldi ortan esan zenituenetatik onako aukerak jaso nai nituzke nere idatz-lantxo apal ontan:

- Nere naia, liburu orren bidez izkera txikien egoera Europa'ko gizon aundi guztiek jakitea izango litzake. Ederki esana! Orixe bera bait da gu guztien naia!

- (Oso egokia iduritzen zaitez-lako, Bizkaierazko itz bat erabiliko dut): Antolatza gaozten Europa berriak izkuntzaskoduna ("plurilingüe") izen bear du; ta kulturaskoduna ("pluricultural"). Bapo On Fernando! Bear-bearrezko eginkizuna dugu, Europa berri ortan Erri danen nortasuna, kultura, eta izkuntzen eskubideak, era berdiñean zaintzea ta babestea. Ez zabiltze oker, ez orixe, Fernando Jauna: Ori bera bait da aspaldidanik Elizaren dotriña: «Pacem in Terris» entziklikak dioskunez, ori egitea, zuzentasunak agintzen duena betetzea bait da; eta orren aurka egiten den guztiak zuzentasuna (justizia) «graviten», «astunki», urratzen bait du. Eta ez dezagun aztu, entziklika ori beste edozein entziklika bezain entziklika dela: Elizak bere dotriña erakusteko erabiltzen duen dokumenturik garrantzitsuena. Soiki dogma baten iragarketa da entziklika bat beñio garrantzi geiagokoa.

- Euskera, Naparro'an, gutxien-

go ("minoría") baten izkuntza da. Altaguztiz, bai Naparroa'ko gizar-tearen geiengoak ("mayoría") bai Napa rroa'ko Jaurlaritzak oso begi onez ikusten dutena.

Egia, On Fernando. Jainkoari eskerrak, asiak dire naparrik geienak euskerari begi atsegiñez begiratzen. Baita euskeraz ez dakiteneke ere. Oartu bait dire «Naparren Izkuntza» ("Lingua Navarorum") euskera dela. eta euskera dela ainzuzen Naparroa'k munduari eman dezaiokean aberasta sunik aundiena. Konparaziorik gabe! Konparazio guztien gaindik!! Aundiena!!!

- Naparroa'ko izkuntza guztien zainketa zintzo gordetzeko prest dago Iruña'n Jaurlaritzak. Bi dire, On Fernando, Naparroa'ko izkera. Gaztelera eta Euskera, ots, Naparrera. Nik ez dizut ukatuko Gaztelera, Naparroa'n, Naparroa'ren aberastasuna denik. Euskalerria Frantziaren eta Espainiaren artean dagoelarik, bearrezkoak ditu Euskalerriak izkuntza oiek munduarekin tratuan asteko. Eta yadanik munduko izkera nagusia Inghlandera delarik, ez litzaziguke gaizki etorriko izkuntza au ere jakitea. Euskera, ordea, gure nortasunik ez galtzeko dugu bearrezkoa.

Zorionak zuri, On Fernando. Eta zorionak baitare eginkizun ortan lagundu omen dizun On Joakin Pascual Jaunari. Eta zuen liburu ori aurkezterakoan ain itz ederrak esan dituen Iruña'ko Udaleko On Iñaki Azcona Jaunari. Asko ez dela Ollarra'ri esan nio-na dasaiot irurotako bakoitzari: bearbearrezko lan santu ortan bat egiñik aurrera jarraitzeko, tori, adiskide, nere esku makal au, eta emaidazu zuk zure esku bikañ ori.

Latiegi'tar Bixente

Joxe Mari Satrustegi Euskal Yakintzaren Iturria

Izenburuan agertzen zaigun neurri ortan bakarrik neurtu dezakegu, baita ulertu idazle onen nortasuna.

Aurtengo uztallaren iruan hotel Mesonnave'n nintzan eta nere begiak in ikusten nuen nolako gai ederrekin saritzen zuten Joxe Mari Satrustegi ludi onetako jakintsuak. Ori erran ziguten et nere aldetik aitortu bearra, idazle onen alderdi ederrena, bere euskal nortasuna, Nafarroa'ko gizon jakintsuaz beteazegoen arrotz-etxe aren aretoa eta ruso-armeniotarrak jaun eta jabe. Orduan esandakoak ortxen geldituko dire gure edestian. Nere aldetik agertu naiko nuke gure idazlearen nortasuna ta emaitza.

Idatzlan au idatzi aurretik bizpauru urrats eman nituen. Zer den Joxe Mari Satrustegi'ren emaitza jakin nai nuen. Zuzen zuzenean Koldo Mitxelena liburutegira jo nuen eta idazle onen liburuen zerrenda eskatu nien. Eun ta sei lan dauzkate gordeta ikerlarien eskue-tan uzteko: Gaiak ederrak, napar idazle batzuen azterketa ta antropologi edo etnologi gaien azterketa.

Ikerlan oietan ikusten dugu nolako begi zorrotza duen ainbeste berri emateko. Bestientzat illuna dena argitasuna biurtzen du, begiak berritzen dizkigu. Konputadoretik ogeitasei orrialde atera zitzaizkigun. Ura emaitza!

Bide berriak urratzen ditula bultzagille bezala agertzen da. nundik nora jo adierazten digu. Bere lan oietan da oso garbia, illuntasun gabekoa. Argia botatzen du ta benetan argitzen. Bere langela eredu, baita idazteko maia. Zere sanik ez bere liburutegian. Ura gauz ederra eta nolako eredua garbitasuna zer den jakiteko.

Euskara erabiltzen dula gure izkuntza zarraren maitasuna garbi ageri. Euskalzale aundien urratsetan, an ondoan jarri dezaiokegu: Juan Perotxegi, Arturo Kanpin, Iturralde ta Manuel Iruxo'ren ondotik. Zenbat tokietara deitu duten eta bere itzala laguntza aundikoa izan da ta danez gain bere aolkua. Nafarro osoaren gañean euki izan dau beti begia, erneasko. Gaizki dabil uste lukena gizon bakarrik ikerlanetan dugula txapel-dun. Eliz gaietan berdin eta berdin. Maila aundiko pastoralista izana da. Arrigarriak ziren gizon onek antolatzen zituen ekintzak eta ibilli aldiak Urdian'en baita itzaldiak prestatzen erritarrentzat. Zerbait



ikasi nai dutenak ikus nere argazki alburak Urdian'en ateriak. Ura edertasuna eta betiko zorarena: txistularik mordoka, dantzarik ezin konta ala...

Ba zuen begia erriko edertasunak dantzan jartzeko. Ikus zer egin zuen Aitziber Ibarran... Nafarroa'ko toki ederrenetako bat, benetan atsegiña. Norbaitek eman ote dizkio eskerrak? Eskerrak ematen agertzen da gizona.

Bertze orrenbertze erran deza-kegu errian, turismoaren deia zabaltzen zebillen. Lantoki berriak ekartzen eta luzaro lurtzen nagusi gertatu zaigu.

Orregatik, gai onetaz erran dezakegu, zabaldutako azia gaur arte Nafarroa'n ezin ohea izan dela eta indar aundikoa.

Ba dakigu ere malla onetako adiskideak, Manuel Lekuona ta Joxe Mari Satrustegi genituela. anitz ikasi nuen bi oiekin. Noiz-beinka eztabaideetan berotzen ziren. Aserre ez nintzan agertu. Biyek ongi xamar astindu ninduten. Or tartean gai orrekin ez nintzan sartu. Ez nekin ezertxore. Oso gutxi ulertzen nuen. Ala guztiz ere bi alderditik ongiasko astindu nin-

дутен. Manuel Lekuonak ba du, baita ere nere aurka idatzitako eskutitz bat oso gogorra. Ikus Ategorrieta'ko artxibuak edo paper zarrak.

Ala ere aitortu naiko nuke bi gizon ospetsu oiek zaindariak eta ezitzalleak direla. Nortasun aundi-ko gizonak, oso andikoak biek. Ba dakitenak ere zallak izaten. Dena dala ta biyek gizon aundiak ezitzalle onak eta yakintzu neurri-rik gabekoak. Alderdi onak aipatzera bakarrik natorkizue, oiek sortzen dute gizon aundien nortasun arri-garria.

Malla ortara iritsi da gure Joxe Mari, langille gogorra izan delako. Askotan bertziak lotan daudela, bere lanean gaba luzeetan, bakarrik etengabe iraun. Olaxe-koak dire gure gizonak.

Bakarrik kezka bat ezin ixildu nere barrenean Orrelako gizonak emaxo liokete Elizari bear dun malla ta itzela. Ze irabazten du orrelako gizon berexiak zoko batean azten? Noizbait erantzun bearko du... Dena dela ta... orrelako gizona a ze emaitza Nafarroarentzat!

Latzaga

Berri ona

Otoitz egiten ikasi

«Aita» (Lk 11, 1-13)

URTE batzuk badira, otoitzari buruz onako esaera au entzun nuela: «Gaur egun gure artean dugun pastoral-arazorik larriena, nola otoitz egin erakustea dugu». Ez dut uste arazo au oraindik gauditu dugunik. Egia da, azken-urte auetan otoitzari buruz urrats ederrak eman ditugula. Baiña bein ere ez dugu bear bezala, kristaukiro, otoitz egiten ikasiko. Orregatik, beti jo bearko dugu apalkiro Jesusengana apostoluak bezala: «Jauna, erakus ezai-guzu otoitz egiten».

Jesusek ez die otoitzari buruz itzaldi luze bat egiñez erantzuten, otoitz labor bat egiñez baizik. Era berriko otoitza da: «Esazue, Aita». Jainkoari «Aita» esatea da kristau-otoitzaren muiña. Jesusek berak bizi izan duen otoitza irakasten die besteek: «Jesus otoitz egiten ari zen leku batean» (1). Apostoluek bazekiten otoitz egiten: juduen oitura jarraituz, an zuten salmoen liburuak otoitz ederrez beteaz. Baiña Jainkoari «Aita» esatea, gauza berezia zen. Ori Jesusek bakarrik irakatsi zezaiekeen. Eta ori dugu gaur egun ere kristau-otoitzaren berezitasun nagusia. Semeak Aitarekin dituen arremanak bizi bear ditugu kristauok gure otoitzean. Kristauaren otoitzak Kristoren otoitza izan bear du eredu eta iturburu.

Aita Jainkoarekin dugun maitasun-arazoa dugu otoitzaren arazoa. Ez da aoz eta mingaiñez itz batzuk esatea, baizik-eta bataioan artu genuen seme-alaben bizi berria egi biurtzea.

Eta onek balio du eskari-otoitza egiten dugunean ere (11,5-13). Badira gaur egun, eskari-otoitza ez dela egiazko otoitza esaten dutenak, eskalearen otoitza delako. Baiña Jesusek bein eta berriz esaten digu: «Esa ezazue... billa ezazue... jo atea...» (9). Aurtxoak bere aitari egiten dion eskea bezala da. Jainkoari zerbait eskatzean, ez dugu, iñolaz ere, Jainkoa gure eskarietara beartzeko asmorik. Eta ondo dakigu, guk eskatu baiño leen, guk bear dugun guztia bada-kiela. Baiña gogoan dugu ez dagoela poz aundiagorik, maite dugu-nari zerbait ematea baiño. Maitasun batean den Jainkoa ez ote da poztuko eske dotozkion bere seme-alabei bere doiak emanez?

Gure eguneroko bizitzan, zer dugu jateko ogia, arraia eta arrautzak baiño gauza bearrezkoagorik? (11-12). Eta gure kristau-bizitzan, zer pizgarriagorik Espiritu Santua baiño? (13). Lotsarik gabe, maitasunez, eska bear genizkioke doai aukerak gure zeruko Aitari.

A. Apaolaza

Baztandik

Maiatzako hilabetea ere yoan zaiku eta usteketan hilabete guziak bezala. Euria egin du baina bai eguraldi ederrak ere. Erranairu zaharrak dienez: «Sakel batean urie eta bertzeak iruzkie». Kanpo giro dago eta ezta arrankurik.

Nekazariak kontent dira, belaiak aberats eta bazka pileka. Kukua ere entzun dugu eta horrek bozkarioz bete gaitu, batez ere kukua lenbiko aldiz entzuten denean eta sakelean sosik balin badugu orduan urte guzian ezpazaiu sosik faltako, baina sosik gabe aurkitzen bagara, ordua urte guzian sosik gabe. Laster mututuko zaiku kukua, Sanpedro-tan ixiliko baita.

Bada bertze txori bat «Tokile» deitzen dena eta hunek ere badauka bere eginkizuna: «Tokile kantari, fite urie».

Eta egia izanen da hain segur, zain egon gaitzen.

Salbatoreak ere yoan ziren eta iruriteko bestak deus makurrik gabe ospatu zien. Urteko lenbiziko bestak baitira, hok erreliste haundie izaten dute. Yendea biltzen da. Aurtengo eguraldiakin suertea izan dute Iruritarrek. Yendea kontent dago. Urdazubiko bestak ere Salbatoretan eta herri huntan ere izan da mugimendu Mugaz-bertzaldetik urtero bezala yende aunitz ibili da.

Aurtengo badugu «Baztandarren Biltzarra» Elizondan eta bestaren antolatzaileak ari dira lanean. Yoan den urtean ez ginuen izan bestarik baina aurtengo izanen dugu. Lenbiziko Biltzarra 1963 garren urtean egin zen eta badaramagu urte andana bat gure Biltzarra antolatzen. Baztandarren Biltzarra Uztailaren

19-an ospatuko dugu eta segur gara erreliste haundia erdietsiko duela.

Baztan guziak bat eginik ospatuko dugu gure Biltzarra, Karrozak, Dantzari Taldeak, Soñulariak, Baztaria eta ospakizun guziak, elkartasun osoan eginen direla.

Baztandarren Biltzarrak izen haundia du Euskalerrri osoan, Nafarroatik eta batez ere Iparralde-tik yende aunitz etorriko dela eta baita ere, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabatik ere. Billera hauek garrantzi haundia daukate, elkar-ezagutzak euskaldunen artean, har-emanak atzunduko ez direnak eta holaxe.

Baztandarren biltzarrak daukan izen ona Euskalerrri osoan datua dago, yarraiki hortan. Aurtengo Uztailaren 19-an Baztandarren Biltzarra.

M. Izeta